

## PRENTSA OHARRA

### **UDAL LIBURUTEGIEK 8.700 KARNET BERRIREKIN ETA AURREKO URTEAN BAINO IA 100.000 BISITA GEHIAGOREKIN ITXI ZUTEN 2009. EKITALDIA**

Karnet kopuruak %11 egin du gora, azken bost urteetako hazkunderik nagusia, eta 86.000 dira jada udal liburutegiak erabiltzeko txartel hori dutenak; hau da, gure Hiribilduko biztanleen 4tik 1.

Liburutegiek jaso zituzten bisitak %12 baino gehiago hazi ziren, eta kopuru orokorra 760.904koa izan zen; liburuen eta beste euskarri batzuen maileguak %9,6 egin zuen gora, eta nabarmen hazi zen (%11,3) udan, liburutegietatik kanpo, burutzen diren kultur jardueren eta irakurketa bultzatzeko jarduketan parte hartze kopurua.

Internet sarbide inalanbrikoa eta doakoa duten WI-FI guneek 13.760 erabilera izan zituzten, 2008an baino %128 gehiago, eta Didakteketako erabilera publikoko ordenagailuen erabileraren hazkundera %29 handiagoa izan zen.

**Erabiltzaileen satisfazioari buruzko urteko inkestak, 10etik 7,8 puntuko balorazio orokorra ematen du, eta inkesta egin duten pertsonen %91k, 2008an baino bost puntu gehiago, zerbitzua gomendatzeko "nahiko" edo "oso" prest dagoela esan du.**

**Joan den urteko apirilean Castañoseko Udaltegian liburutegia irekiz, udal sarea 15 liburutegitara heldu da.**

**Bilbon, 2010eko otsailaren 22an.** Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren esku dauden **udal liburutegiek bosgarren urtez jarraian handiagotu dute bere jarduera eta erabilera orokorren kopurua**, eta hiritarrek gero eta gehiago eskatzen eta erabiltzen duten erreferentziazko kultur zerbitzu gisa finkatu dira. 2009. ekitaldiari dagozkien errendimendu adierazleek oso emaitza pozgarriak erakusten dituzte, bisita eta karnet banaketa kopuruari dagokionez zein etxerako maileguei, kultur jarduerak izan duten parte hartzeari edo zentroetan instalatu diren teknologia berrien erabilerari dagokienez.

**2009an %11 egin zuen gora udal liburutegietako zerbitzuak erabat erabiltzeko aukera ematen duten karnet kopuruak**, hau da, 2004tik izandako hazkunderik nagusia. Horrela, bazkide kopurua

86.000 pertsonara heldu da, hau da, Hiribilduko erroldako %24, edo, beste modu batera esanda, lau bilbotarretatik ia batek Udal Liburutegi Sarearen karneta du.

Era berean, **liburutegietara joan den jende kopuruak ere %12,3 egin du gora**, 760.904 bisitara heldu arte, hau da, 2.669 pertsona liburutegiak irekita egon diren egun bakoitzean. Horri dagokionez, Zabalako liburutegiak izan duen hazkundera azpimarratu behar da, 2008. urtean baino %57 bisitari gehiago izan baititu. Azpimarratzeko beste bat joan den urteko apirilean inauguratu zen Castañoseko liburutegia da; irekita egon den ordu bakoitzeko bisita gehien jaso dituen sareko ekipamendua bilakatu da -Bidebarrieta kenduta- eta, horrez gain, bere erabiltzaileen artean proportzioan haur gehiago dituen liburutegia da.

Katalogo automatizatuaren **kontsulta** guztiei dagokienez, 859.247 kontsulta egin dira, aurreko ekitaldian baino %28 gehiago. Aipatu behar da oso esanguratsua dela gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dutela udaleko web gunea ([www.bilbao.net/bibliotecas](http://www.bilbao.net/bibliotecas)) katalogora sartzeko, eta, horrela, aurreko urtearekin alderatuz, 2009an %31,3ko hazkundera izan du.

#### **ETXERAKO MAILEGUAK**

Liburuen eta kulturako beste euskarri batzuen etxerako maileguei dagokienez, **hori ere nabarmen hazi zen aurreko urtean, %9,6**, guztira 445.732 mailegu egin ziren -kopuru hori %14koa da liburuen maileguari dagokionez-. Alor horretan nabarmen azpimarratu behar dira Begoñako eta Zabalako liburutegiak, %23tik gorako hazkundera izan baitute. 2009an maileguan utzitako guztiaren %65,3 inprimatutako materiala izan zen, eta gainerako %34,7 ikus-entzunezko eta soinuzko materiala eta material elektronikoa izan zen.

Datu horiek aztertuta aukera dugu, baita ere, jakiteko zein diren jendeak gehien aukeratzen dituen liburuak. Nagusien literaturari dagokionez, maileguan utzitako liburuen zerrendaren buru Stieg Larsson-en bi eleberri daude, "La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina" eta "Los hombres que no amaban a las mujeres". Ondoren Camila Läckbert-en "Los gritos del pasado" edo Carlos Ruiz Zafón-en "El juego del ángel" daude.

Haur literaturari dagokionez, gehien eskatzen diren hamar izenburuen artean bost Gerónimo Stiltonenak eta beste bi bere arreba Tea Stiltonenak dira. Sagu horiek dira bilduma arrakastatsu horren protagonistak. Zortzigarren tokian Disneyren euskarazko argitalpen bat dago, "Lotarako Disney istorioak".

Liburuekin batera, udal liburutegiek beste zenbait kultur euskarri dute jendearentzat, musika grabazioak eta filmak, adibidez. Lehen atalean, Amaralen "Gato negro, dragón rojo" diskoa izan da gehien

utzi dena, eta haren ondoren Michael Jackson ("Thriller 25") eta Ainhoa Arteta ("La vida"). Gehien eskatu diren filmak Clint Eastwood-en "Cartas desde Iwo Jima", Coen anaien "No es país para viejos" eta George Miller "Happy feet: rompiendo el hielo" daude.

Beste alde batetik, **leku horietan eskaintzen diren kultur programetara** (hitzaldiak, tailerrak, kontu-kontalariak...) joaten den jende kopuruak aurreko urteko antzekoa da. 2009an, irakurketa bultzatzeko eta orokorrean kultura bultzatzeko 254 saio burutu dira, eta horietan 18.494 pertsonak hartu zuten parte, aurreko urtean baino %5,5 gehiago. Alor horretan azpimarratzekoa da liburutegietatik kanpo (parkeetan eta igerilekuetan) burutu ziren **udako jarduerak** lortu zuten parte hartze maila ona. Horrek azaltzen du, neurri handian, lortutako hazkunde orokorra.

Azpimarratzeko beste gaietako bat **teknologia berrien** gero eta erabilera handiagoa da, jendearen esku jarritako ordenagailuak erabiliz (42.644 erailera, aurreko urtean baino %29 gehiago) zein hainbat liburutegitan prestatu diren Interneterako lotura doakoak eta inalanbrikoak (Wi-Fi). Azken horien erabilera %128 igo da aurreko urtearekin alderatuz. Esan behar da 2009an Didaktea gunea ireki zela Zabalako liburutegian, ordenagailu bidezko lan kontsulta punturekin.

### **GERO ETA SARE HANDIAGOA**

Udal sareak liburutegi nagusi bat (Bidebarrieta), barrutiko bi liburutegi (Deustua eta Begoña), eta auzoko azpiegiturak (San Inazio, Zurbaran, Otxarkoaga, San Frantzisko, San Adrian, Irala, Errekalde, Zabala, Zorrotza) ditu, eta horiei guztiei 2009an Castañoseko Udaltegian dagoen liburutegi berria gehitu zitzaizen. Horrez gain, jendeak aukera du liburutegi espezializatura joateko BilbaoMusikan eta zerbitzu puntu batera Buian. Horiekin guztiekin, 15 liburutegik osatutako sarea eratzen dugu.

63 pertsonak eskaintzen dute arreta 381.369 jasotzen dituen liburutegi sare zabal honekin erlasionaturiko zerbitzuetan. 2009an zehar dokumentu fondoak ugaritu egin ziren, 14.789 ale eskuratu zirelako eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren (3.736 ale), Kultura Ministerioaren (138 ale), Vilanova y la Gertrúko liburutegiaren (katalanezko literaturako 49 ale) eta zenbait norbanakoren dohaintzei esker.

### **BEZEROAREN SATISFAZIOA**

Liburutegi sarearen errendimenduaren adierazleen bilakaera koantitatiboa positiboa izan bada, gauza bera gertatu da erabiltzaileen satisfazioarekin, ekipamendu horien balorazio hobea erakusten baitute. Horri dagokionez, satisfazioari buruzko urteroko inkestak **10etik 7,8 puntuko balorazio orokorra ematen du, eta inkesta egin duten pertsonen %91k, 2008an baino bost puntu**

**gehiago, zerbitzua gomendatzeko "nahiko" edo "oso" prest dagoela esan du.**

Beste alde batetik, kexak (106) %22 murriztu ziren eta iradokizunak (245), gehienak kontsultako materiala eskuratzearen ingurukoak, kasuen %85,3tan bete ahal izan ziren.

Denbora gutxi barru 3. edizioa argitaratuko duen Bilboko udal liburutegien zerbitzu kartan sartzen dira, besteak beste, etxerako egin diren maileguak (sareko edozein zentruren bitartez egindako maileguak barne), katalogo automatizatuaren edo Internet bitarteko kontsultak, beste liburutegi batzuetako dokumentuak eskuratzea, informazioa eta aholkularitza, baliabide informatikoen eta telematikoen erabilera eta irakurketa sustatzeko eta kulturarekin erlazionaturiko jarduerak.